

GERENTEAREN EBAZPENA, 2019KO AZAROAREN 8KOA; HONEN BIDEZ, GUFeko ALDI BATERAKO LANeko POLtSEN OSAERARI DAGOKIONEZ AUKERATZEKO ESKUBIDEA BALIATZEKO EPEA ZABALTZEA XEDATU DA.

Gerente andrea:

GUFeren Gobernu Batzordeak, 2018ko apirilaren 13an egindako bilera arruntean, besteak beste, aldi baterako laneko poltsak kudeatzeko irizpide berriak onartu zituen, zonifikazio berriaren eranskinarekin batera. Testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO, 76. zk., 2018ko apirilaren 20koa, eta okerren zuzenketa BAOren 85. zenbakian, 2018ko maiatzaren 4an) eta GUFeren iragarki-oholean eta web-orrian argitaratu zen.

Erabaki horren bidez, ahalmena ematen zitzaion GUFeko gerenteari testu horretan ezarritakoa gauzatzeko, eta, ondorioz, orain, besteak beste, aldi baterako laneko poltsak kategorien arabera aukeratzeko eskubidea baliatzeko epea zabaltzea xedatu du, dokumentuan ezarritako epean eta moduan.

Interesatuta dauden pertsonen 2018an onartutako zonen banaketa berriaren arabera baliatu ahal izango dute aukera-eskubidea. Zonifikazio hori lan-poltsak kudeatzeko irizpideen dokumentuan dago jasota. Eskubide hori orain baliatzen ez duten pertsonen kasuan, 2018ko azken zonifikazioan adierazitako aukerak mantenduko dira. Orduan beren aukerak adierazi ez zituztenen kasuan, ez dute galduko eskubidea, baina plaza hutsak betetzeko egon daitezkeen beharizanetarako lan-poltsa orokor batean baino ezin izango dira sartu, eta beti Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko buruak ezartzen duen eran.

Aurreko guztiaren berri eman zaie erakundearen ordezkariak duten sindikatuei, horretarako egin den Lan-poltsen Jarraipenerako Batzordearen bileran.

Edonola ere, poltsak osatzen dituzten pertsonen lanpostua betetzeko baldintza guztiak bete beharko dituzte kontratua egiten den egunean.

Gai hau ebazteko eskumena GUFeko gerenteari dagokio, lehen aipatutako gaikuntzan eta GUFeren Estatutuak aldarazteari buruzko 2001eko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauko 9. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Beraz, hau sinatzen dutenak honako ebazpen-proposamen hau aurkezten dizute, aztertu eta onar dezazun:

EBAZPENA

Lehenengoa- Zona aukeratzeko epe bat zabaltzea, **azaroaren 18tik abenduaren 8ra**, egun biak barne, GUFeren lan-eskaintza publikoetan sortutako lan-poltsak osatzen dituzten pertsonen lanerako zona aukeratzeko eskubidea baliatu dezaten. Telematikoki egin beharko dute, GUFeren web-orrian (www.ifas.bizkaia.eus), «Lan-poltsak» atalean, «Zonifikazioa 2019» loturan.

Gizarte langileen kategorian, ez dute orain aukeratu behar zona, egiten ari den hautaketa-prozesua amaitzen denean sortzen den lan-poltsa osatu ondoren ezartzen den epean baizik.

Erizainen kategorian, berriz, 2006ko lan-eskaintza publikoa eta gero eraturako lan-poltsan dauden pertsonen



aukeratuko dute zona. Orain egiten ari den hautaketa-prozesuan parte hartu dutenek ez dute orain aukeratu behar zona; aurrerago zehaztuko da aukera egiteko epea, gizarte-langileen kasuan bezala.

Interesatuta dauden pertsonen 2018an onartutako zonen banaketa berriaren arabera baliatu ahal izango dute aukera-eskubidea. Eskubide hori orain baliatzen ez duten pertsonen kasuan, 2018ko azken zonifikazioan adierazitako aukerak mantenduko dira. Orduan beren aukerak adierazi ez zituztenen kasuan, ez dute galduko eskubidea, baina plaza hutsak betetzeko egon daitezkeen beharizanetarako lan-poltsa orokor batean baino ezin izango dira sartu, eta beti Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko buruak ezartzen duen eran.

Bigarrena.- Ebazpen honen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta GUFEn iragarki-oholean eta web-orrian argitaratzea, baita lurraldean zabalkunderik handiena duten egunkarietan ere.

Hirugarrena.- Ebazpen honen berri ematea Zerbitzu Orokorren Departamentuko buruari, Antolaketa eta Hobekuntzarako Departamentuko buruari, zentroetako zuzendaritzei eta GUFEn ordezkariak duten sindikatuei.

Bilbon, 2019ko azaroaren 8an

AUKERAKETA ETA HORNIKUNTZA ARLOKO BURUA

Sin.: M^a José Larrinaga Artetxe

PERTSONAK ZUZENTZEKO DEPARTAMENTUKO
BURUA

Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

GUFeko gerentearen 2019ko azaroaren 8ko
EBAZPENA. Aurreko proposamena ikusi ondoren,
osorik onartzen dut. Aurrekoa bete bedi.

Sin.: Nerea Urten Azpitarte